

Kepa Altonagak gomendatuta

EBOLUZIOA IRAKURGAI

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



IKER AZURMENDI

i

The Song of the Dodo

David Quammen

Scribner

234 x 155 mm

ISBN: 0-684-82712-3

El cuento del antepasado

Richard Dawkins

Antoni Bosch

230 x 150 mm

ISBN: 978-84-95348-28-9

Jatorrizko izenburua:

*The tale of the ancestor***Un Dinosaurio en un Pajar**

Stephen Jay Gould

Crítica

226 x 152 mm

ISBN: 978-84-74238-10-5

Jatorrizko izenburua:

Dinosaur in Haystack

Kepa Altonagak zoologia irakasten du Euskal Herriko Unibertsitatean. Hari eskatu diogu zientzia-liburuen gomendio bat egiteko. Alde batetik, hiru dibulgazio-liburu gomendatu dizkigu, eta, bestetik, fikziozko bi. Aipatzekoa da gomendioen artean Richard Dawkins-en liburu bat dagoela, Stephen Jay Gould-en liburu batekin batera; eboluzioaren bi ikuspegi ezberdin dira, askotan kontrajarriak, baina biak oso interesgarriak.

Lehen liburua David Quammen estatubatuarraren *The Song of the Dodo* da. “Zoragarria da” esaten du Altonagak. Eboluzioan interesa duen edozeinentzat da interesgarria liburua. Datu deigarri batetik abiatzen da: uharteetan askoz espezie gehiago desagertzen da beste tokietan baino. Quammenek hainbat uharte eta artxipelagoren kasuak aztertzen ditu, eta saiatzeko da lurraldearen azaleraren eta espezie-kopuruaren arteko erlazio bat bilatzen. Analisisian, gizakia-aren eskuak ere garrantzi handia du.

The tale of the ancestor da bigarren liburua (*El cuento del antepasado* gaztelaniazko argitalpean). Eboluzioan atzeranzko bidaia bat da, gizakietatik abiatuta. Idazleak, Richard Dawkins ingelesak, formatu hori eman dio liburuari, kontrako bideari jarraituz gero oso ikuspuntu antropozentrikoa lortzen baita; gizakietara bideratzen duen eboluzioaren ikuspuntua saihestu nahi izan du modu horretan. Haren ustez, bidaia atzerantz eginda, aldiz, eboluzioaren edozein adarretik abiatuta ere, helmuga lehen biziduna da, beste bizidun guztion arbasoa (*ancestor*). Gizakietatik abiatuta, berrogei bidegurutze daude eboluzioaren bidean lehen arbaso hartaraino; Dawkinsek bidegurutze horiek guztiak hartzen ditu liburuaren haritzat.

Hirugarren liburua Stephen Jay Gould estatubatuarraren *Dinosaur in Haystack* da (*Un Dinosaurio en un Pajar*). Goulden hogeita hamalau saiakeraren bilduma bat da; haietako batek ematen dio izenburua liburu osoari. Saiakera horietan eboluzioari berari buruzko gogoeta apartak daude; eta gai horretatik abiatuta beste esparru askotara eramaten gaitu Goulden, literaturara adibidez. Aipatzekoa da Frankenstein eta Mary Shelley idazleari buruzko saiakera bat.

Eboluzioari buruz irakurtzeko beste aukera bat da fikziozko liburu bitartez egitea. Altonagak John Darnton idazlearen *Darwin Conspiracy* (*El secreto de Darwin*) eta Harry Thompsonen *To The Edge of the World* (*Hacia Los confines del mundo*) gomendatzen dizkigu. ●

